

# BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremanari dagokionez, bezeroek hiru aukera izango dituzte erosteko.

Lehenik eta behin, gu okindegian egongo gara une oro, gure bezeroei zerbitzua emateko prest, eta horrek zuzeneko harremana emango digu haiekin, eta laguntza edo arreta pertsonala eskainiko diegu.

Bigarrenik, gure saltokian jarriko diren pantaila digitalen bidez, haiek autozerbitzua izateko aukera izango dute kontsumitu nahi dituzten produktuak aukeratzeko eta pertsonalizatzeko.

Azkenik, teknologia berrien baliabidearekin lotuta eta ikusita app-en arrakasta gorantza doala, aplikazio bat sortuko dugu hala nahi dutenentzat, modu erosoagoan eta praktikoagoan erosteko, non dauden kontuan hartu gabe.

Azken bi aukerek ez dute kontsumitzailearengana hainbeste hurbiltzeko aukerarik ematen, baina hobea da kontsumitzailearen erosotasunerako. Gainera, era erraz batean, kontsumitzaileei beren gustuko produktuak pertsonalizatzeko aukera eskaintzen diegu.